# Gaurkoan

# Zorroagan euskaraz ikasi

**Joxe Azurmendi (*)**

Merezi al du Zorroagan estudiatzea? Eta, bigarren, merezi al du Zorroagan euskaraz estudiatzea? Eta... Galdezka jarrai liteke. Dena problema da.

Zorroagan euskaraz egin liteke, eta erdaraz egin liteke, karrera bat. Batzuek, sakrifizio bat irudituz oraindik euskaraz egitea, nahiago omen dizute erdaraz egin.

Hasteko, sakrifiziorik egin nahi ez duenik, ez dugu ezertarako behar karrerarik egiten. Horrelakoak hobeto daude beren etxeetan, karrerak beste edozeinentzat utziaz, erdarazkoak nahiz euskarazkoak. Baina sakrifizio piska bat egiteko prest dagoenak, sakrifizio batzuen truke, alde onik eta abantailarik ere izango du euskaraz ihardunez. Eta ez naiz abantaila materialez, edo euskaldun bezala edozeinek eduki beharko lukeen kontzientzia minimoaz ari. Horiek aparte (eta, egia esateko, ez dago zergatik aparte utzi), ikasketak euskaraz egiteko gogoa duenari, talde txikiago, koherenteago batetan, gutxienez beste edonongo tamainantsu ibiltzeko ez zaio aukerarik faltako.

Ikusten dizut begietan zure malezia, irribarrez-irribarrez... Izan ere, Zorroaga desastre bat omen da, bai. Eta ez naiz ni izango, atrebentziarekin, besterik demostratzearren asko nekatuko natzaizunik. Herri honetako beste mila gauza bezalakoxea da, halare. Denatatik dago. Baina, mito zahar eta berriak gorabehera, hor gabiltzan euskaldunok behintzat, Zorroagan ez ipuinetako Unibertsitate superprogrea eta ez superkaotikoa ikusi nahi genuke. Euskadik behar duen ikastegia, lantegia baizik. Eta kito. Zorroaga oso ondo jarri liteke. Gure esku dago guk geure partea ondo jartzea eta ondo eramatea. Horixe da inporta dion gauza bakarra.

Nola? Ikaslearen interesek izan behar dute nagusi, erabateko nagusigo osoz. Bestalde, Zorroagak berak, nire ustez, ikas eta irakasketa zentru bat izan behar du, eta ona izan daiteke. Inbestigazio-zentru azkarrik izateko baldintzarik ere ez dauka oraingoz: Bibliotekatik hasi eta mila arrazoi gehiagotaraino. Alde honetatik, zalantza gabe, Zorroagak ez du beste Unibertsitate klasiko anitzen sonarik eta erakarmenik izango inbestigazio-zentru gisa. Baina hori euskaraz adina gertatzen da erdaraz.

Behar bezalako inbestigazio-zentrua denborarekin bakarrik bilakatuko da. Unibertsitate berri batek ez du milagrorik egiten. Gainera, inbestigazioarena batez ere irakasleei lihoakiekeen arazoa litzateke. Ikasleari interesatzen zaiona, batez ere ikasketa-zentru on bat da. Hori da Euskal Herriak aurren aurrenik behar duena ere, giza-zientzietan bereziki. Zorroaga irakaskuntza-zentru bezala potentziatzea da, hortakoz, lehen eta behingoena orain. Asmo horrekin eta helburu horrexekin, hain zuzen, jarri dira euskarazko sailak aparte azken urteotan. Garbi bait dago, ikas/irakasketak ondo eramateko, pausoz-pauso eta mailaz maila joan beharko dugula.

Zorroagan giza-zientziak ikasten dira: filosofia, pedagogia, psikologia. Eman dezagun, bada, UBI (edo COU deritzona) bukatu eta norbaitek hiru hauetakoren bat ikasi nahi duela. Zer da, ikasle horrek Zorroagako euskarazko sailetan aurkituko duena? Batez ere informazioa. Seguruenik euskaraz ez du izen distiratsu haundiko irakaslerik aurkituko. Baina ikasi, azkenean norberak ikasi behar izaten duela, ahaztu ez bazaio oporretan, horregatik ez da ikaratuko, ez lotsatuko.

Beno, badakigu, irakasle ilustre batzuei entzun nahiak (entzun ez da ikasi), nolako lilura sortzen dion ikasle eta ikasle-gogo askori. Bidezkoa da. Halare, honen edo haren teoria partikularrak baino lehenago, nik uste, ikasleak informazio arrunt eta orokor zehatza beharko du, ezta? Nahikoa denbora izango du gero, teoria desberdinen eta Maisuen artean bere aukera egiteko. Ikasketak lana dira eta irakaskuntza zerbitzu bat da: ikasten edo irakasten ari garen gaiari buruz, munduan dabilen informazioa ahalik eta zehazkien eta osokien biltzeko lana eta zerbitzua. Hori basikoki egin eta gero hasten da inbestigazio eta aukera pertsonalei ekiteko bidea.

Zorroagan horixe egiten da (saiatzen garela behintzat, esan beharko da, bakoitza bere alorrean¡. Eta zer moduzkoa, euskal irakaslegoa? Nola ez, bada: dabilen hainbeste zurru eta murrurekin, ezin falta zitekeen galderatxo hau.

Dudarik ez dagoena zera da: Zorroagak duen, edo izan dezakeen, fama, ez zaiola euskal irakaslegoari zor. Apenas izan du horretan arterik, ez parterik, ez onerako, ez txarrerako: beste gauza batzuen artean, euskarazko sailak berriegiak direlako gehienbatean.

Euskarazko sailik gehienak nahiko berriak dira Zorroagan, mailaz-maila antolatu bait da karrera osoa euskaraz egiteko posibilitatea, ez hasiera-hasieratik eta kolpe batetan. Dena dela, herri honetan beti erdara aurretik ibiltzen bait zaigu, gaurko euskarazko irakasle gehien-gehienak lehenago Zorroagan bertan edo –sarriago– beste Unibertsitateren batetan erdaraz irakasten ibiliak dira, Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Oraintxe berton euskarazko irakasle askok erdaraz ere irakasten jarraitzen du Zorroagan, lehenengo kurtsoan euskaraz eta boskarrenean erdaraz esate baterako (fantasmada hutsa da, beraz, okerragoa ez bada, euskarazko irakaslegoa euskaraz jakiteagatik omen dagoela, ez bere irakasgaiekiko jantzitasunagatik: erdaraz emateko jantzita zegoena, biluzik geratzen ote da euskaraz ematera pasatzen denean?). Arriskua beren gain hartu zutenak, lehenengo ikasleak izan dira. Guar-egun karrera osoa euskaraz egiteko posibilitatea aseguraturik dago, ez dago bide erdian geratzeko arriskurik. Irakaslegoaren maila eskasago batean arriskurik ere ez dago, esan dugun ikas/irakaskuntzaren aldetik batez ere. Eta Maisu partikularren bati entzun nahi dionak, huraxe interesatzen zaiolako, munduko libertate guztia dauka hari frantsesez nahiz gaztelaniaz entzuteko, eta ondo egingo du gainera.

Euskarazko taldeak nahiko txikiak gara: ikasleen eta irakasleen arteko urbiltasuna ezezik, horrela, talde haundian baino errazagoa da diziplina bera. Eta, euskaldunok oraindik militantzia dosi piska bat izan ohi bait dugu, leku gutxitan bezala ikusten da, ikasleek eta irakasleek normal-normal ordu batzuk extra lanegitea ere, elkarri lagundu behar zaionean. Talde txikiaren abantailak dira.

Ez diogu inori eskutatu nahi, erakutsi behar askorik ere apenas duena: oraindik akats asko duela etxe honek. Hasi besterik ez dugu egin, ezin gera gintezke egindakotxoarekin alai eta lasai. Honera datorrenak, bada, ez du perfekziorik aurkituko, baina bai bere ahalmenak eta bere ideiak non ongi enplegatu, gogoz eta ideiaz kargatuta baldin badator, behar duen bezala. Euskal Herria quk egiten dugun Euskal Herria da. Eta guk egiten duguna izango da Euskal Herriko Unibertsitatea.

(*) **Zorroagako Filosofiako irakaslea**

# Puntaren Puntan

## uno de los nuestros

Euskadi es una mina para algunas revistas semanales que tienen portada y reportaje asegurados a cuenta de su sensacionalismo morboso y desaforado con el que sorprenden y alucinan al ingenuo lector. Esta semana los de siempre nos han salido con un titular espectacular de venta segura: "El guardia civil que se pasó a ETA"... y luego apostillan "por el amor de una mujer".

Una lectura más serena del reportaje pone un tanto las cosas en su punto. En realidad se trata de algo mucho más lógico y prosaico. Un muchacho que viene el año 76 como guardia civil a Euskadi sufre el doloroso trauma, el descubrimiento de su función represora contra un pueblo en el que quiere echar raíces y plantea su salida de la Benemérita para conseguir en pocos meses, el 30 de abril del 77, la salida de la institución. De eso hace ahora siete años largos. Posteriormente, Filio Rodríguez madurará en sus convicciones hasta convertirse en un consecuente militante de Herri Batasuna. Y ahora viene la pregunta: ¿Qué tiene que ver eso con lo de "El guardia civil que se pasó a ETA"?

El problema está en ese desorbitado sensacionalismo de juzgado de guardia de "Cambio 16". Su sectaria y calculada manipulación homologan una vez más a HB con ETA en una gravísima acción ya habitual por otra parte en estos periodistas-policías de Madrid. Filio Rodríguez que hace siete años dejó la Guardia Civil porque tuvo una lucidez que incluso a pesar de todas las manipulaciones se adivina claramente en la entrevista del semanario, ha tenido la valentía de explicar y decir lo que siente, lo que sentimos tanta gente del pueblo. Lo malo es que cayó en las garras de los lobos del sensacionalismo de "Diario 16". Pero a pesar de esos titulares indignantes, a pesar de la manipulación de las frases y de las fotos, Filio sigue siendo uno de los nuestros, del pueblo y esto es lo que importa.

J. ABIRANETA

# Hemeroteca

## jugar con la historia

*(El Día, 7-6-84)*

El desembarco de Reagan, ayer en Normandía, vino a ser una parodia, una repetición burda de la Historia. Si lo que se pretendía era rendir homenaje a los miles y miles de soldados aliados que ofrecieron su vida para abrir un boquete decisivo contra el nazismo, no se entiende la utilización maniquea del acto, su acompañamiento de peroratas y problemas protocolarios de pésimo efecto. Pero Reagan, que se halla en vísperas de medir sus fuerzas electorales con un candidato demócrata aún por decidir, precisa ganar guerras incruentas, batallas de ficción cinematográfica, escaramuzas llenas de palabrería.

Todos los discursos que han precedido a la jornada de ayer han significado la voluntad del presidente norteamericano por convertir el aniversario en ocasión única para visitar la Europa sembrada de misiles de fabricación y control norteamericano con el aire del que viene de nuevo a salvar al Viejo Continente de sus peligros domésticos. En un momento en que Holanda aplaza la instalación de los euromisiles por efecto de la fortísima respuesta ciudadana, Reagan se considera obligado a convencer a los europeos de que el paraguas de la OTAN permitiría repetir –si fuera preciso– el desembarco de Normandía. Ahora con control remoto. (...)

El mensaje lanzado ayer a todos los vientos no era propiamente histórico ni siquiera político: se trataba de un alegato militarista, armamentista, en los umbrales del belicismo. Eso y no sólo la manipulación de la Historia, explica las reacciones histéricas de Moscú, uno de cuyos portavoces llegó a escribir ayer que Reagan lamenta hoy que la alianza durante la guerra mundial estuviera dirigida contra Hitler y no contra la URSS. La dureza de las respuestas resulta una vez más paralela a la de las acusaciones.

## bandera constitucional

*(Declaraciones de Joseba Elosegi, a "Deia", 8-6-84)*

"La ikurriña retirada el miércoles por mí –aseguró Joseba Elosegi–, batalló en la guerra civil contra el fascismo. Comprendo que en la época de Franco, nuestros emblemas y banderas capturados podían ser mostrados como símbolos arrebatados a un enemigo del fascismo y franquismo. Efectivamente, la ikurriña que peleó aquí contra Franco siguió combatiendo en Europa contra el nazismo. Por eso, allí, en el desembarco de Normandía, estuvo también nuestra ikurriña. La lucha por la democracia ha estado siempre palpitando en el espíritu de los vascos, desde que existen en este mundo. Al volver la ikurriña, con Franco, a la clandestinidad, los vascos nos hemos sentido doloridos de verlas exhibidas como "arrebatadas al enemigo". Hoy parece absurdo que una bandera constitucional, como es la ikurriña, pueda ser exhibida como trofeo "arrebatada al enemigo", ¿Quién es el enemigo?, ¿acaso la Constitución? La ikurriña es una bandera legalmente admitida y constitucionalmente aprobada, por ello considero un contrasentido que continúe en una vitrina, como arrebatada al enemigo. La ikurriña no es, ni ha sido nunca, enemiga de la democracia española".

## años de paz

*(Xavier Domingo, en "Diario 16", 8-6-84)*

El señor González es un auténtico pacifista que ha comprendido que la paz ha de defenderse desde dentro de la OTAN y no en la calle. Los intereses de España están en la paz, y no en la guerra, es evidente, aunque la paz tenga en estos días "P" de Pershing. No hay más cera que la que arde y la paz, o la no-guerra en Europa, están entre la OTAN y el Pacto de Varsovia y España ni debe, ni puede inhibirse otra vez, sobre todo después de haber adoptado para su Gobierno un sistema democrático cuyo principal enemigo es el imperialismo militarista y de partido único de la URSS.

Cuando las otras naciones europeas del mismo sistema están también en esa necesidad, no hay tercera vía ni neutralismo posibles.

Los años de paz están condicionados a la fuerza disuasiva, militar y política, de la OTAN. La paz de España, también.




*(El Periódico)*